

Sagardotegien denboraldia hastera doa

■ Bihar bertan zabalduko dituzte beren ateak Gipuzkoakoek. ■ Joxe Mari Bakero futbolariak hartu zuen parte atzo aurkezpenean. ■ Sagardo ona da aurtengo, produzitzaileek diotenez

Astigarraga eta bere inguruneak dira gure herrialdean sagardotegien kokagune nagusia, eta bertan egin ohi da azken urteotan denboraldiaren hasiera ofiziala. Atzo egin zen ekitaldi nagusia eta bertan festa giroa bizitzeaz gain sektore honek bizi duen egoera eta dituen kezka azaldu ziren.

X. ARAMENDI

Astigarragako sagardogileek San Sebastian egunaren aurreko ostirala, hau da, biharko eguna, hautatu dute sagardotegiak irekitzeko eta, hori aprobetxatuz, Udalak eta sagardogile elkarteek ekitaldi berezia antolatu zuten atzokoan. Herriko sagardotegi batean burutu zen ekitaldia eta bertan 130 pertsona inguru bildu ziren, instituzioetako ordezkariak, sagardogile eta komunikabideetako kideen artean.

Joxe Mari Bakero futbolariak ere parte hartu nahi izan zuen eta Bartzelonatik iritsi zen Astigarraga. Ia bi orduko atzerapenarekin bada ere, hegazkinarekin izandako arazoak medio, bazkariaren amaiera aldera ailegatu zen sagardotegira, eta txalaparta eta dantzarien saioarekin batera kupela zabaldu eta urteko sagardo berria edan zuen.

Bazkariaren aurretik Astigarragako Udaletxeko Pleno Areatoan sagardogileek, Iñaki Txueka Nekazaritzako diputatuak, Lakuako Elikadura Politikarako zuzendaria den German Murumendiarekin eta Mikel Zabala alkateak sektorearen inguruko hainbat datu eman zituzten.

Produkzioa

Aurtengo produkzioa bederatzi milioi kilo sagar eta sei milioi sagardo litrokoa izan da, eta azken urteotan salmentan eman den gorakada aipatu zuten bereziki bertan bildutakoek. Gipuzkoa da Hegoaldean gehien kontsumitzen duen gunea, produkzioaren ia %60ra iritsiz, eta sagardogileek bereaiek onartu zuten oso zaila da kopurua handitzea. Beraz, Bizkaia, Nafarroa eta Araba izanik geroz eta gehiago kontsumitzen duten herrialdeak bertara jotzea da helburua. Gaur egun Bizkaian %22ra iritsi dira, azken urteotan %2-3ko igoera izanik.

Udazkenean egin duen eguraldi ona medio aurreratu egin da sagardo, baina beren uestez horrek ez du esan nahi goizegi egin denik. Tradizioz, sagardo urriaren 15a eta azaroaren 15a bitartean egiten da nagusiki. Ha-



Atzoko bazkarian aurtengo lehen sagardoa dastatzeko aukera izan zen Astigarragan.

Jon URBE

lere, aurten aurreratu egin da denboraldia, uda hasiera beroa eta lehorra izan baitzen eta eurriak berandu iritsi baitziren. Gainera, udazken beroa izan denez gero, azkarrago fermentatu da eta sagardoa ere lehenago egin zen, azaroaren lehen asterako bukatua baitzegoen.

Sagar uza oso heldua eta azukre askokoa izan da eta, ondorioz, sagardogileek adierazita koaren arabera, kontsumitzaileek kalitate handiko sagardoa dastatu ahal izango dute.

Botilatan

Aurten ere, aurrekoetan bezala, sagardoaren gehiengo botilatan salduko da, txotxetik edaten den sagardoak produkzioaren %5a besterik ez baitu suposatzen.

Atzo agertu ziren kezken artean azkenaldian sagardotegien izaeraren inguruan ematen den aldaketa nabarmendu zen, zaletuak lehen edaria dastatzera joaten baziren orain hori galduz doala ikusten baitute.

Alkateak berak kontsumitzaileek lehen zuten jakituria herrikoien galera gaineratu zuen, bere uestez hori garrantzitsua baita.

Honi dagokionez, jatzetxe eta sagardotegien arteko nahasketa

ere kaltegarria delakoan daude, eta kriterioak batu eta bata zein bestea desberdintzearen aldeko agertu ziren.

Honekin batera, sagardotegien denboraldiaren hasiera herrikojagoa bilakatzeko asmoa ere agertu zuten, eta datorren urterako Udaletxearen ondoan eraikitzen ari den udal pilotaleku berriaren egiteko aukera aipatu zuten, herritarrek ere parte har dezaten.

Urteko sagardoa egiteko beharrezkoa den sagarraren erdia inguru ekoizten da Gipuzkoan eta horren aurrean sagarrondoak aldatzen ari dira Diputazioetik, gaur egun 400 hektarea inguru izanik landatutakoak. Eta oraindik 7-8 urte behar izango dira sagar gutzia bertan produzitzeko, hori Jatorrizko Izendapena emateko orduan oztupo izanik.

Udalaren partetik sagardogileekin elkarlanean segitzeko asmoa agertu zen, Astigarragako herriak aipatu edariarekin duen ezinbesteko lotura kontuan izanda. Gainera, sagardoak suposatzen duen diru-sarrera garrantzitsua ere ezin da ahaztu, eta aspektu ezkorren artean asteburutan biltzen den jendetzak sortarazten dituen arazoak aipatu ziren.



Joxe Mari Bakero zabaldu zuen lehen kupela.

Jon URBE